

Gure enpresaren diru-iturri nagusia aktiboak saltzea izango litzateke. Aktibo horiek dira gure uretako xurgagailu patentatuak. Ordainketa bakar gisa edo hilero egin liteke urtebetean, bigarren kasuan, ordainketa osoa %3 igo. Horrez gain, harpidetza bidezko zerbitzu bat dugu, eta zerbitzu horretan, produktua saldu ondoren, haren mantentze-lana eskaintzen dugu; hemen, ordainketak hilero edo urtero egingo lirateke, eta urteko harpidetza eskuratuz gero, ordainketa osoa %3 murriztuko litzateke. Bigarren mailako diru-sarrera gisa, bildutako plastikoaz arduratzen garenez, jasotako plastikoa berrerabiltzen duten enpresa biojasangarriei salduko diegu.